




Turismoen matrikulazioak gora egin du EAEn

EAEn matrikulatutako turismoak
Urte bakoitzeko urtarriletik abendura




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratu berri dituen datuen arabera, EAEn 22.333 turismo saldu ziren 2023an, hau da, aurreko urtean baino %6,1 gehiago. Gorakada hori gorabehera, iaz lortutako kantitatea oso urrun dago pandemia hasi aurreko urteetan saldu ziren kopuruetatik.

Aireko trafikoak hazkunde nabarmena izan du EAEn

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak
Urte bakoitzeko urtarriletik abendura. Milakoak




Iturria: AENA.

2023an zehar, hegazkinez bidaiatu zuten pertsonen kopuruak marka historikoa ezarri zuen, zazpi milioi desplazamenduak gaindituz. Urte arteko aldakuntza tasan, igoera hori %24 izan zen aurreko urtearekin alderatuta, eta horrek baieztatzen du pandemiaren kalteak dagoeneko gainditu direla.



Langabezia %7,ora jaitsi zen laugarren hiruhilekoan

Langabezia tasa EAEn
Ehunekoak




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **2023. urtearen amaieran Euskadiko langabezia tasa %7,ora jaitsi zen, aurreko hiruhilekoko erregistroa baino puntu erdi bat behereago**. Hain zuzen ere, oraingoa 2008. urtearen amaieratik lortutako baliorik txikiena da, urte horretan enplegu betea lortu baitzen.

Esportazioak %0,8 areagotu ziren azaroan

Ondasunen esportazioak atzerrira
Urte bakoitzeko urtarriletik azarora bitartean



Iturria: Eustat.

Azaroan, EAeko esportazioak %0,8 gehitu ziren aurreko urteko hil beraren aldean, beste behin ere, produktu energetikoen hazkundeari esker (%49,1). Zifra absolutuetan, urteko kopuru metatua 30.265 milioi eurokoa izan zen, serie historiko osoko erregistrorik handiena.